



184. zenbakia

· MARTXOA 2019 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan

KOORDINATZAILEAK

Lur Gil eta Itziar Perez

TIRADA

1.600 aleak

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Ultzaman pagoak ateratzen ari den prozesadora

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira apirilaren 12 an bidalia

Olerkia



Joxema Leitzza Razkin

Nafarroako bertsolari txapelketako finalean

“ Nafarroa ez da erdia oihan
ta erdia basamortu,

Nafarroa ez da plaza nagusi
Nafarroa ez da azken portu.

Eta zergatik aurreiritziz
irudimena agortu,

bertsolaritzak hortan zer egin
dezake lortuak lortu,

golde ta molde berriak landuz
paisaia berriak sortu ”



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Egun Ero irratsaioa itzuli da Esan Erranera

Martxoaren 4ean itzuli zen Lanzko ihauterietatik emititutako saio berezi batekin eta geroztik astelehenetik ostiralera goizeko 10:00etatik 11:00ak arte entzuten ahal duzue 107.9an. Martxoan 30 elkarrizketa baino gehiago egin dituzte eta amezti.eus entzuten ahal dituzue.

LurGilRey dateknika eta estari lanetan, harekin batera mikrofonoan Itziar Pérez Argomaniz ere bai. Martxoaren 4az geroztik Egun Ero irratsaioa martxan jarri dute berriro Esan Erran irratan, 107.9an.

Osotara 30 elkarrizketa baino gehiago egin dituzte hilabete honetan. Besteak

beste, greba feminista antolatzen ibili ziren Basaburuko Erruki Ezkurrari eta Aiora Epelderi; Ttikiena hauteskolako zuzendari Amaia Ariztegi; Cosimoren Katiuskak liburuarekin Ana Ibañezekin batera Etxepare Saria jaso zuen Dani Martirena Erasoko bizilagunari; Oskozko Joana Ziganda bertsolariari; 'Raketistak lehen eta orain' elkarteko

Jon Juanesi; eta Txalaparta argitaletxeko Jon Jimenezi; beste askoren artean.

Esan bezala, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 11:00ak arte entzuten ahal da zuzenean, eta amezti.eus-en nahi denean. Orain arte egindako elkarrizketak ere amezti.eus/irratia/ elkarrizketak atalean aurkitzen ahal dira.



▲ Ohianzabel eskolako umeak



profesionalak emakume kirolari

Lehenengo emakume kirolari profesionalak: erraketa jokalaririk

1917an hasi, eta 1980a arte aritu ziren. Munduko lehenengo emakume kirolari profesionalak izan ziren, eta Gizarte Segurantzaren kotizatzen lehenengoak. Batzuk lehen mailako futbol jokalaririk gizonetakoekin baino diru gehiago irabaztera iritsi ziren, eta, hala ere, ez da haien historia ezagutzen. Raketistak lehen eta orain elkarrekin, ordea, haiek ahanzturatik ateratzeko lanean da. 220 erraketa jokalariren datuak eta materiala bildu ditu, eta dokumental eta erakusketa baten bidez ematen ari da ezagutzera. Jauntsarasko Apeztegiberriko dendan dokumentala eman zuten, eta orain ikusgai da erakusketa.

JON JUANES- RAKETISTAK LEHEN ETA ORAIN ELKARTEA

• Frankismoan debekatu egin zen emakume hauen jarduerak?

Hasiera batean debekatzen saiatu ziren, baina enpresari askok dirutza irabazten zuten eta indarra zuen kirola zenez, nolabaiteko tratua egitea lortu zuten: lizentzia berri gehiago ez ziren emango, hau da, raketista berri gehiagok ezingo zuten debutatu, baina zeuden lizentziak mantendu egingo ziren; beraz, aurretik debutatutako raketistek jokatzeko jarraitu ahal izan zuten. Gero berriz irekitzen dute debutatzeko aukera hori, baina ordurako berandu zen eta gainbehera etorri zen.

• 1917an hasi ziren jokatzeko, nola sortu zen kirol modalitate hau?

Garai hartan erremontea, esku-pilota eta pala gorak zetozen Espainian, eta Madril eta Bartzelonan frontoi ugari zegoen, eta negozioa handia zen. Horregatik, hainbat enpresarik neskak ere pilotan jartzea pentsatu zuten. Aldez aurretik saiakera batzuk egin zituzten, baina arrakastarik gabe, eta, azkenean, 1917an, hasi ziren. Hasieran teniseko pilotarekin, eta handik urtebetera larruzko pilotarekin.

• Zein ziren neskak haiek? Oso gazterik hasten ziren, ezta?

Hasieran eta frankismo garaian 14 eta 15 urterekin joaten ziren Euskal Herriko Madrilera, Kordobara, Sevillara, Valentziara, Bartzelonara. Beste raketista batzuekin pentsioetan jartzen zituzten, eta bizitza berri bat hasi behar izaten zuten. Eta, gainera, garai hartan...

• Dokumentalean eta argazkietan ikusten ahal da gona luzez jantzita jokatzeko zutela, erraketa ere berezia zuten, nolakoa zen haien jokatzeko modua?

Dokumentalean, bukaeran ikusten da jokoan olakoak, eta hori ikusita jendea konturatzen da, benetan, zer nolako espektakulua zen. Pilota oso bizia zen, beste modalitate batzuetatik hartuta, zesta-puntatik edo erremontetik, pilota berdina zen, baina erraketa ez berdina. Eta, gainera, frontoia askoz ere txikiagoa zen: esku-pilotako arauko frontoia 36 metrokoa da, eta haiek 24 bat metroko frontoietan jokatzen zuten.

• Esan duzu modalitatea berreskuratu nahi izan zutenerako berandu zela, baina zuen elkarrekin lanaren bitartez posible litzateke, gaur egun, kirol hau berreskuratzea?



Jauntsarasko Maritxu Rekondo Azpiroz erraketistak, Tinerfen aritutakoak, kromoa badu. Erakusketan ikusgai dago.



Gona luzez, erraketa bereziarekin eta 24 bat metroko frontoietan jokatzen zuten, joku bizi-bizia zen haiena. ▼

Saiakera bat egin genuen, 10 bat erakustaldi eman genituen, baina erraketen eta abarren kostua handia zen. Euskal Herrian dauden pilotari hoberenak jarri genituen, baina asko kostatzen zitzairen erraketaz aritzea. Horiek eskuz, trinketea eta paleta goman jokatutakoak dira, baina garai hartako erraketa jokalariek egunero jokatzen zuten, batzuetan egunean bitan, ez zuten jaiegunik izaten, hilabetea bi egun besterik ez. Orduan izugarrizko maila zuten, eta gaur egungo jokalariek ez dute denborarik horretarako. Pena da sekulako espektakulua litzatekeelako.

● **Atsedetik hartzeko denborarik ez, enpresariak zeuden horren atzetik, dirutza egitea lortu zuten, ezta?**

Dirutza, bai. Kasu batean, adibidez, raketista bat ezagutu nuen, duela urtebete hil zena; bere senarrari ez zitzaion gustatzen berak esaten zuenean senarrak baino gehiago irabazten zuela. Eta senarra lehen mailako futbol jokalaria zen, Valentzian. Hark kristoren dirutza irabazten zuen.



● **Erakusketan zer ikusten ahal dugu?**

Hasierako lehenengo argazkiak izango dira ikusgai, baita kromoak ere. 1944an Fronton Tenerifeko eta hango tabako lantegi bateko nagusia zenak kromoak atera zituen tabako paketeetan, eta kromo horiek ere ikusi ahalko dira. Mexiko edo Kubako pilotari taldea, Bartzelonakoak, raketistei jarritako isunak, eta horrelakoak ere bai. Jauntsaratsen bazeuden bi ahizpa raketista, eta dokumentalaren proiektzioan haien familiakoak izan ziren, eta ahizpetako bat Tenerifen jokatzen aritu zen, eta kromo bat du, erakusketan ikusi daitekeena.

Maritxu Azpiroz Rekondo 'Marutxi' da, erremontisten arreba izan zen, eta ahizpa bat ere Mexikon ibilitakoa zuen. Ahizpa horren gaineko materialik ez dugu topatu, baina bilatzen ari gara.

● **Beraz, ikertzen jarraitzen duzue?**

Euskal Herrian, oraingoz, 220 raketista zerrendatu ahal izan ditugu. Haien guztien izen-abizenak eta datuak kontrastatuak ditugu. Aste Santuan Mexikora joango gara azkenetako raketistak, han ibilitakoak, elkarrizketatzera. 90-93 urteren bueltan daude, eta, beraz, azkeneko aukera dugu.




▲ 220 erraketisten datuak bildu ditu 'Raketistak lehen eta orain elkartek'.



Etxean jokoa erakutsi nahi baina ezin

Apirilaren 19an aukera polita eman zien Aspe enpresak Ultzamako bi pilotariri eta bere lagun eta bizilagunei. Izan ere, pilota profesionaleko bi partida antolatu zituen Larraintzarren, eta profesionalen artean oraindik ere afizionatu mailan aritzen den Andoni Gaskue gaztea.



▲ Andoni Gaskue

● ANDONI GASKUE

Larraintzarkoak lehenago ere aukera izan zuen profesionalekin aritzeko, baina oraingoa berezia zen, bere herritarren aurrean erakutsiko zuen bere balioa. Eta hala egin zuen, nahiz eta oso partida gogorra suertatu eta lan handiak izan pilotari erantzuteko.

Markagailuan alde nabarmena izan zen bikoteen artean, baina itxura polita eman zuen Gaskuek profesionalen aldamenean. Partida amaituta ere pozik agertu zen Larraintzarko atzelari gaztea enpresak emandako aukeragatik.

Honela idatzi zuen Carlos Zuluagak Andoni Gaskueri buruz:

“Julian Lajos, Ultzamako Larraintzarren jaiotakoa, atzelari ikusgarria eta manomanista handia izan zen. 1971 urtean txapela jantzi zuen,

bigarren nafarra txapela irabazten, eta hamarkada horretan Nafarroako pelotaren loraldia hasi zuen Juan Ignacio Retegi handiarekin batera. 1976. urtean berriro jantzi zuen txapela. 20 urteko ibilbide profesionalean, kantxa barruan erakutsitako izaera fuertea izan zen bere ezaugarria eta, batez ere, bere eskubiarekin pelotari ematen zion abiadura. Horren bidez aurkari gehienen erresistentzia puskatzen zuen.

Hara non, 30 urte geroago, badirudi Larraintzarren oinordekotza hartzeko moduan dela bertako gazte bat, Andoni Gaskue, duen gorputz txikirako kolpe harrigarria duelako eta pelotari abiadura handia ematen diolako. Mutil gogorra frontoian eta langilea, eskuz banakakoan ondo moldatzen da.

Dirudienez Julian Lajos handiak badu segida bere herrian, eta bertako Buruzgain taldean dabilzan haurrek badute bere pausoak segitzeko eredua.”

● PEIO ETXEBERRIA

Urte eta erdi darama Zenozko Peio Etxeberriak profesionaletan, eta denbora luzez aritzeko etorria dela erakutsi du. Promozio mailako binakako txapelketan eskura izan du finalerako txartela Garmendia atzelari duela. Baina azken bi partidetan egindako akatsek finaletik baztertu zuten.

Jokoan deus ez zuela jokatu zuen Larraintzarren martxoaren 19an, baina Ultzamako pilotalekuak ez dio poz handirik eman, eta oraingoa ere alde handiarekin galdu zuen Ladis Galartzarekin batera Jaka eta Tolosaren aurka. Jakaren joko ikaragarriak ez zion inongo aukerarik eman Peiori, eta bai bera zein Ladis baldar aritu ziren pilotan.

Dena den, ez da hori Peiok beste partidetan erakutsi duen maila, eta ziur udako jaialdietan bere bertsiorik hoberena ikusiko dugula.



Peio Etxeberriaren debuteko argazkia ▲



Proactiva Open Arms GKErendako dirua biltzen ari da Lorea Basterretxea ir aizoztarra

Martxoaren 22an izan zen bere urtebetetzea eta, opari bat jaso ordez, dirua eskatzea erabaki zuen errefuxiatuak mediterranoan laguntzen dituen erakunde honetarako. Facebooken bitartez jarri du martxan ekimena eta sare sozial honetako perfilean 'Lorea Basterretxea' perfilean aurkituko duzue modua eta informazioa. Lorea duela bi urte errefuxiatuak laguntzen aritu zen Finlandian, eta horregatik erabaki du Proactiva Open Arms erakunde honi laguntzea. 55.000 pertsona Mediterraneoan itota hiltzea saihestu du erakundeak, Loreak azaltzen duenez. Apirilaren 30 arte ematen ahal da ekimen honetarako dirua.

Lorea Basterretxea ir aizoztarrak 19 urte bete berri ditu eta Medikuntza ikasten ari da Bilbon. Gainera, argazkilaritza asko gustatzen zaio eta Pulunpeko azken argazki lehiaketako irabazletako bat izan zen.



▲ Lorea Basterretxea

Amaitu da Gartzarongo pala eta frontenis txapelketa

Martxoaren 22an izan zen Basaburua eta Imozko kirol batzordeak antolatzen duen txapelketaren finala. Emaitzak honako hauek izan dira: bigarren mailan Zepelo eta Juanjo gailendu ziren 30 eta 22 irabazi baitzieten Iñakiri eta Zapari; lehen mailan Legarrak eta Zabaletak irabazi zuten Koldo eta Endikaren aurka, 30 eta 22; eta frontenisko nesken artean Eiderrek eta Eunateg eraman zuten txapela Karolina eta Andrearen aurka jokatu, 25 eta 21eko emaitzarekin. Gainera, Etxarri Aranazko neskek erakustaldi partida bat jokatu zuten finala baino lehen.

Otsailaren 7an hasi zen eta 20 bikote inguruk eman zuten izena: zazpi lehen mailan, seik bigarren mailan eta nesken paleta gomako txapelketan beste seik. 25 urte baino gehiago daramatza kirol batzordeak txapelketa antolatzen.

Txapelketa bukatuta Basaburuko eta Imozko kirol batzordeak urteko ekitaldiak prestatzen jarraitzen dute: apirilaren 20an duatloia izango da Gartzaronen, maiatzaren segalariak arituko dira Beramendi eta Udaleko zelaian eta maiatzaren 20rako Basaburuko BTTa antolatu dute.



▲ Gartzarongo frontenis eta paleta txapelketan lehiatutakoak



Adineko jendearendako parke bat Gerendiainen, bizilagunek eskatuta

Martxoaren erdialdean jarri zuten umeendako parkearen ondoan, eta herrian zahar-etxea izanik, adineko jendeak erabiltzeko helburuarekin. Zahar-etxetik atera eta bisitan datozenekin herrian paseoak ematen dituzte adinekoek, haiengan pentsatuz jarri dute gimnasio moduko parkea. Aurrekontu parte-hartzaileetan gehien bozkaturako ideia izan zen, eta horregatik kontzejuak argi zuen aurrera eramane behar zela, Martin Pikabea lehendakariak esan digunez, eta horrela egin dute azkenean. 2.000 euroko kostua izan du parkeak eta Gerendiaingo biztanleak pozik daude harekin. Aurrekontu parte-hartzaileetan proposaturako neurrien artean aurrera eramaten hurrengoak, besteak beste, frontoia margotzea eta hilerriaren aurrean hormigoia jartzea izango dira.



Gerendiaingo parkea ▲

Atezko Izarpe kanpinak urte bat bete du

Urtebete egin du Izarpe kanpinak ireki zutenetik, eta martxoaren 16an urtebetetzea ospatu zuten. Destino Sonora taldearen kontzertuak alaitu zuen jaia, euskal folka eta mariatxiak uztartzen ditu bere musikak. Bestalde, besteak beste, aurpegi margotzea, magia eta bazkaria antolatu zuten. Bete-betea izan zuten kanpina ospakizunean, bazkarirako sarrera guztiak aurretik bukatu baitziren.

Urtebete ondoren Marta Gaston, kanpina martxan jarri zutenetako bat, pozik agertu da. 5 kidek hasi zuten eta hainbat langile kontratatu behar izan dituzte lan handia baitute. Inguruko herrietako bizilagunek ere ederki hartu dute gune berria, ongi bazkaltzen dela, arrazoietakoa bat. Erreserbei dagokienez ere ez dira kexu jabeak.



Izarpe kanpinak urte bat bete du ▲

La Unica RT sasoi ederrean

Iruñeko La Unica Rugby Taldeko kirolariak, BRT-koak ez bezala, sailkapen taularen lehenengo postuetan ageri dira. Gainera, berriki txapelketa bat irabazi dute Alacanten.

Fallas Aedas Homes txapelketan irabazle

Fallas Aedas Homes txapelketa jokatu zen martxoko 16/17ko asteburuan Alacant inguruan. Talde izaera eta harremana indartzeko helburuz joan zen La Unica Rugby Taldea bertara, eta energiak berrituta itzuli ziren, eta ez eguzkiak gogor jotzen zuelako, txapelketa irabaztea lortu zutelako baizik.

Larunbata eta igandez aritu ziren jokoan, ligaxka moduan hiru partida larunbatean, eta final erdiak eta finala igandean. Taldeko lehenak izan ziren larunbatean, baina Mahadaonda Emerging taldearen aurka berdinduz. Igandean final aurrekoak irabazi ostean talde bera izan zuten finalean, eta defentsa lan serio baten ondorioz garaipena eskuratu zuten nafarrek.

Olagueko Noelia Telletxearekin mintzatu ginen irratian txapelketaren ondoren, eta helburuak ongi beteta itzuli zirela aipatu zigun, asteburu eder baten ostean. “Euskal Ligan aritzen gara gu, eta oso ona da gure ligatik kanpoko taldeen aurka lehiatzea, honela gure benetako maila neurtu dezakegulako” azaldu zigun.

Euskal Ligan hirugarren

Bi talde ditu La Unicak Euskal Ligan, azken urteetan 10 neska berri sartu baitira, eta 40 inguru dira orain. Lehenengo taldea hirugarren postuan da, eta hala amaituko duziurrenik. Liga laster amaituko da, baina udaberri eta udan “Seven” modalitatea izanen dute, zazpi jokalarirekin arituz.

Azken urteetan Ohorezko mailara igotzeko lehian aritu da taldea, Euskal Liga irabazi ostean. Aurten ezin izanen dute, baina datozen urteetan lehia horretan egon daitezkeela ziurra da.



▲ La Unicako jokariak oroigarria jasotzen - Jose Luis Perez





Irratiak saretzen jarraituko dugu

Arrosa sarea, euskarazko irrati libre eta komunitarioen sareak zortzigarren topaketak izan zituen martxoaren 23an Urretxun, KKInzona irratan. Esan Erran irratiako kideok ere han izan ginen elkar ezagutu eta irration etorkizunaz solasteko.

Euskal Herriko zazpi herrialdeetako 23 irrati biltzen ditu Arrosa sareak. Herria Mugi! ekimenak, Joxemi Zumalabe Fundazioaren laguntzarekin, 2001eko udaberrian Euskal Herriko Herri Mugimenduen III. Topaketak antolatu zituen Barrian (Araba).

Ekimen horretako Komunikazio lan taldeak proposatuta, Euskal Herriko irrati mordoxka bat deitu ziren planteamendu garbi batekin: irration arteko elkarlana areagotu, eta gure baliabideei probetxu hobia ateratzeko ezer egin ote zitekeen hausnartzea. Euskal Herria Zuzenean festibalean egin zen sortze bilera, Arrosa herrian, eta bertatik datorkio izena sareari.

Ordutik, elkarlanean aritu gara indarrak batu eta aurrera egiteko. Elkarlan horrek biziki lagundu digu irrati txikioi, besteak beste, gure programazioa eduki interesgarri betetzeko, irratsaien elkartrukatzearen bidez.

Hauek dira Arrosa saretik hartzen ditugun irratsaioak:

ZEBRABIDEA (Astelehenetik ostiralera, 16:00-18:00): Arrosa sareko irrati guztiok elkarlanean egiten dugun magazina.

KARAKOLA SEGI HOLA (Astelehenetan, 19:00-20:30): Baztango Xorroxin irratiako magazina

ARMA TXIO PUM (Asteartetan 19:00-19:30): Oiartzun irratiako twitterreko komentarioak

ERRAIETATIK (Asteartetan 19:30-20:30): Gasteizko Hala Bedi irratiako kultura kontuak

A DESALAMBRAR (Asteazkenetan 19:00-20:30): Gasteizko Hala Bedi irratiako irratsaio internazionalista

HANKAK LURREAN (Ostegunetan 19:00-20:00): Zarauzko Arraio irratiako nekazaritza kontuak

ERRO TA BERRI (Ostiraletan 19:00-20:00): Gasteizko Hala Bedi irratiako munduko musika

BIDE EGINEZ (Larunbatetatan 11:00-13:30): Baztango Xorroxin irratiako astearen errepasoa

BERTSOINKA (Larunbatetan 13:30-14:30): Baztango Xorroxin irratiako bertsolaritza saioa

SOINUGELA (Larunbatetan 15:00-17:00): Bilbo Hiria irratiako irratsaio musikala

ADI (Larunbatetan 17:00-18:00): Iparraldeko Euskal irratiak irratsaio musikala

KOLPEZ KOLPE (Larunbatetan 18:00-20:00): Iruñeko Eguzki irratiako irratsaio musikala

GAUR EZ DAGO ESKOLARIK (Igandeetan 13:30-14:00): Bilbo Hiria irratiak haurrentako saioa

POTTO (Igandeetan 19:00-19:30): Bilbo Hiria irratiako bertsolaritza saioa

ATALKA (Igandeetan 20:00-21:00): Zarauzko Arraio irratiako irratsaio feminista

AHUNTZAREN GAUERDIKO

EZTULA (Igandeetan 21:00-23:00): Zarauzko Arraio irratiak aktualitate saioa



Martxan da berriro Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoa

Martxoaren 18an jarri zuten abian euskarazko literatura bultzatu nahi duen kanpaina, eta maiatzaren 31ra arte iraungo du. Parte hartzeko hiru pausu besterik ez dira jarraitu behar:

1. Lehenengo pausoa irakurtzea da, euskarazko liburu bat irakurtzea, alegia. Horretarako, herriko liburutegi publikora joan, Ultzamako liburutegira, adibidez, eta euskarazko edozein liburu maileguan eskatu.
2. Liburua irakurri, liburutegira itzuli, eta fitxa erraz bat bete: zein izan den irakurritako liburua eta zer iritzi dugun. Fitxa hori beteta, liburuzainak erosketa-txekea emango digu, hitzartutako liburu dendan erabiltzeko.
3. Azken pausua, liburua oparitzea da: lagun bati, senide bati, edo norbere buruari.

Liburutegian jasotako erosketa-txekeak, euskarazko beste edozein

liburu %35 merkeago erosteko aukera emango digu. Horrez gain, apiril eta maiatz bukaeran, liburutegi bakoitzean 30€ko balioa duen txeki baten zozketa egingo da, hile horretan irakurle fitxa bete dutenen artean. Txeki berezi horrek, besteek bezala, euskarazko liburuak erosteko aukera emango du. Erosketa-txekeak liburu dendan erabiltzeko epea ekainaren 17ra artekoa izango da.

Aurreko edizioetan frogatu da kanpainak eragin positiboa izaten duela herritarrek herriko liburutegian egiten duten euskarazko liburuen mailegu kopuruan. Izan ere, egitasmoaren helburuetariko bat horixe da, euskaldunak liburutegi publikoen erabiltzaile bihurtzea. Era berean, ekimenak liburuen salmentan izaten duen eragina kontuan hartzekoa da.



**IRAKURRI
GOZATU
OPARITU**

Euskarazko liburu bat irakurtzen gozatu eta gainera, beste liburu bat %35 merkeago erosteko txekia lortuko duzu.
Martxoaren 18tik maiatzaren 31ra, zure herriko liburutegian.

Lekeitioko trinkete jokalarien bisita izan dute Gartzaronen

Duela hiru urte hasi ziren topaketa hauek antolatzen, eta urtero etortzen dira Lekeitioko trinkete jokalariek Gartzarona. Era berean, Gartzarondik Lekeitiora joaten dira bisitan. Martxoan bizkaitarren txanda izan da, eta martxoaren 8tik 10era Basaburuan izan dira. Larunbat arratsaldean torneo txiki bat antolatu zuten eta txapela gurean geratu zen, Mikel Jaunarena “Zepelok” eta Iñaki Egaña irabazi baitzuten. Baina pilotaz gain, eskualdean gozatzeko aukera izan zuten: Amaluraren Erronka “escape” jokoa egin zuten, Jauntsaratsen, eta txangoak inguruan.



▲ Lekeitiarrak Gartzarongoekin torneo txiki batean lehiatu ziren



iritzia



Garazi Arrula
Berria egunkarian

“Besteen Gernikak”

2019ko martxoak 22

Sarean ikusitako argazki bat: aurreko planoan andre bat, edadetua —ile urdinak eta azaleko ximurrek salatzen dutenez—, nabarmen hunkiturik, bi eskuez begi urtsuak igurzten dituela eta ezkerreko eskuarekin, aldi berean, paperezko tutu bati eusten diola. Atzeko planoan, olio mihise bat: kolore itzaliz, gizon bat lurrian etzanda, hilik —buru inguruko orbanak salatzen duenez—, eta bi ume ondoan hari negarrez, bat belauniko eta bestea zutik. Argazkiaren azalpenak dio Amalia Boveda dela andre hunkitua, eta amaren sabelean zelarik tiroz hil ziotela aita faxistek, 1936an.

Alfonso Rodriguez Castelaok pintatu zuen 45ean Aderradeiraleición domestre, haren lagun eta burkide Alexandre Bovedaren fusilatzea errepresentatu eta horren bidez nazionalismo galegoa deuseztatzeko ekina salatzeak. Margoa Buenos Aireseko zentro galegotik eraman dute Ourensera zenbait astetarako, eta orduan ikusi eta hunkitu ahal izan da Amalia, eta norbaitek une horretan atera ahal izan du argazkia eta horrela lerrootaraino ekarri bai Castelaok, bai galiziar independentismoa, bai hain urrun dituzten eta ditugun ikur horiek. Galiziako Guernica deitu izan diote koadroari. Nork hartzen dituen beretzat sinboloak, zergatik, zer helbururekin. Non gelditu den Castelaok, non galdu Boveda, martiri izendapenaz harago non.

Fusilatu aurretik, senideek eta adiskideek agurtu ahal izan zuten intelektual galegoa, eta nonbait esaten da bere azkenetan Rosalia de Castro leitzen aritu zela: «Eta ez nuen negarra atertu/ behin ere, Gaztelatik/ eroan behar izan ninduten arte/ Eroan ninduten, bertan/ ez nintzaten lurperatu behar», dio Castrok Koldo Izagirrenen ahotsean. Akabatu zutenetik ez du Bovedaren gorpuak sorterrira utzi, nola ez duen negarra atertu, 83 urte iragan eta gero, haren alabak. Tarteko urratsen faltan.

O Groven, Rosalia de Castro eta Alexandre Boveda kaleak elkartu egiten dira, beste behin, beste non.

Ikastaro ugari osatutako Itsasoneko jardunaldiak jarraitzen dute

Apirilaren 26 eta 28 bitarteko asteburuan izango dira hurrengo ikastaroak. Oraingo honetan zura lantzeko tailerra eta kakorraz lanekoa antolatu dira. Gainera, 65 urtetik gorako pertsonendakoa eta emakumeei zuzendutako talde prozesuei buruzkoa errepikatuko dira. Umeendako ludoteka ere izango da.

Otsailaren 22an hasi zen jardunaldi ziklo hori Muskizko Itsasonean, eta ekainera arte hilean behin, asteburuan, ikastaroak izanen dituzte bertan. Orain arte bi asteburuetan izan dira eta ikastaro ugari bildu dituzte: besteak beste, artilea eta artilezko xaboiak egiteko tailerra Artilezko Hodeiak proiektuko Adriana Ojer eta Alain Floresekin; Sukaldaritza osasuntsua Argi Malutak kooperatibako Laia Llopekin; adineko jendearendako tailerra Arantxa Ordoñezekin eta emakumeendako talde prozesuei buruzkoa egin dituzte.

Itsasonean bizi den Idoia Jusue Martirenak egindako proposamenaren ondorioz sortu zen jarduerazikloa. Itsasoneko ganbaran zaharberritutako langelak hutsik zeuden eta horrelako eskaintza aurrera eramateko paregabeak direnez, Imozko Udaleri eskaera egin zion. Artisautza, sormena, ongizatea eta osasuna bateratzen dituen zikloa da. Ikastaroetan izena emateko: 622 208 410 zenbakian telefonoz edo whatsapppe; edo e-mailez itsasoneakoganbara@gmail.com helbidean.



▲ Xaboi artilearekin egiteko tailerra egin zuten Itsasonean



Zaharrak berri

● ERASO

Erasoko elizako teilatua joan den urtean konpondu zuten (Elizakoa eta elizatarikoa)

Kostua, 40.000 eurokoa izan da, eta nola edo hala aurre egin zaio honi: parrokiari diru pixar bat bazen eta horretaz landa Artzapezpikuak 7.000 euro eman ditu, honekin erdia estaliz. Eta beste erdia estali behar. Hori dela eta, parrokiako etxe guzietan eskatu zaie ahal duten neurrian laguntzeko, baina ez da dena bildu ahal izan, herria ere oso ttikia baita.

Nolanahi dela, parrokoak dionez, “zorpean sartu gara, baina Apezetxaren errentarekin ordainduz joanen gara”

Erasoko eliza da Imotz ibarreko zaharrena; hobeki esan, elizaren zati bat, bestea askoz berriagoa baita.



▲ Erasoko eliza

● LATASA

Latasako elizako teilatua oso zahartua eta itaxurez betea zegoen. Dorreko teilatua, berriz, erortzeko arriskuan. Zerbait egin beharra zegoen gehiago hondatu gabe edo ezbeharren bat izan baino lehen, eta iaz egin zituzten lanak.

Eta, bestalde, eliza barneko zurezko zola ere erabat usteldua, aspalditik elizkizunak egitea ere eragozten zuena. Honek ere zerbait aterabide behar zuen eta merkesur edo, porlanezko zola ematea erabaki eta hala egin da. Dena dela, oso txukun gelditu da.

Kostua 39.000 eurokoa izan da.

Eta gastu hau kitatzeko parrokiaren baratzea saldu behar izan da. Eta falta dena ikusi behar nola estali. Artzapezpikuari eskatu zaio laguntza, eta parte bat bederen erdietsiko duela espero du Parrokiak.

Eliza arrunt polita da eta zer esanik ez bere dorrea: motza bezain ederra, Latasako eraikuntzarik ikusgarriena bere ttikasunean (hor duzue fotografia).



▲ Latasako ezkildorrea

● OSTITZ

Hainbeste gatza bota izan da neguetako elurte eta izozteetan, non karrika guziak hondaturik baitaude.

Bai, Kontzejuak karrikak berritu nahi, baina diru-laguntzarik ez dutela erdietsi eta plaza konpontzearekin konforme.

Hori ba, Plaza konpondu berri dute, 110.000 euroko aurrekontuarekin (22.000 euroko subentzio bat erdietsi zuten nahi zenerako eta lan honetan gastatzea erabaki)

Plazaren konponketa dela eta, bertan pasatzen diren lur barneko zerbitzu guziak ere berritu dituzte, karrika guziak berritzean berriz irekitzen ez hasteko.

Doneztebeko Mariezcurrena enpresak egin ditu lanak, orain berriki bukatuak.

Ea hurrengo txandan karriketarako diru-laguntzak erdiesten dituzuen!!!

Korrika

Apirilaren 8an, astelehenarekin heldu da korrika gurera. Urritzara arratsaldeko 20:20 inguruan iritsiko da, eta Basaburua, Ultzama, Odietza, Atetz eta Imotz gurutzatu ondoren, gauerdian aterako da Muskiztik Irurtzun aldera joateko.

IBILBIDEA

Lekunberrietik etorri eta Urritzatik Basaburura sartuko da. Udabe, Beramendi eta Jauntsarats zeharkatu ondoren Gartzarona sartuko da errepide nagusia utzita. Gartzaron eta Erbiti igarota bueltatuko da berriz Alkomorrora bidean, eta Ultzaman sartuko da korrika Ilarregitik 22:00ak aldera.

Ultzaman Auza, Larraintzar eta Lizaso zeharkatuko ditu, eta Odietan sartuko da, Gelbentzun gora; 23:00ak aldera iritsiko da herrira. Bertatik Atetz izanen du hurrengo bailara, Aroztegiko bidegurutzetik sartuko da ordu laurden

beranduago, eta Labaso, Eritzegoiti eta Beratsain zeharkatuko ditu Imotzen sartu aurretik.


Imotzen, Odietan bezala, herri bakarra ukituko du korrikak, Muskiz. Gauerdian iritsiko da Muskizko bidegurutzera, eta handik Ziara bidean jarriko da Korrika, Irurtzunen sartu eta Sakana zeharkatzeko.

Korrikari ongi etorria egiteko, lekukoa iritsi baino lehenago merienda-afariak prestatu dituzte eskualdeko hainbat herritan. Besteak beste, berriki urte bete duen Izarpe kanpinean ateztar ugari elkartuko dira korrikan hasi baino lehen indarrak hartzeko.

KORRIKA KULTURALA

Martxoan herriz herri ibili da Korrika kulturala ere. Itsason hasi zen, eta Gartzaron, Larraintzar, Jauntsarats, Etxaleku, Eraso eta Aizarotz izan ditu egoitza, dozenaka bizilagun elkartuz.

Kultura sormenarekin zerikusia duten eskualdeko artistak izan dira Korrika kulturalaren protagonistak; besteak beste Joana Ziganda bertsolari oskoztarra, Dani Martirena eta Ana Ibañez idazle eta ilustratzaile erasoarrak, Iñaki Larraioz musikari larraintzartarra edo Txari Eleta musikari lizasoarra. Iñaki Perurena, 'Laburbira' film laburren zikloa, 'Txillardegiren klika' dokumentala eta zirkua ere izan dira Korrika kulturaleko protagonista.



Apirilak 8

Klika

21. korrika **30x**
2019ko apirilaren 4tik 14ra
GARESTIK GASTEIZA

KOKALEKUA		ORDUA	NORK HARTUA
1022	Lekunberri-Irurtzun Km7 seinalea bide zaharra	20:19:13	Imozko Udala
1023	Urritza, Km6 seinalea	20:25:43	Urritza eta Goldarazko Kontzejuak
1024	Udaberako bidean, uren kaseta eskuinean	20:32:13	Latasa eta Eraso/Zarrantz Kontzejuak
1025	Gatz siloa	20:38:43	Izarra Tanatorio-Goldarazko Txuribeltza Elkartea
1026	Udabe herrigunea baino lehen, etxea eskuinean	20:45:13	Udabe-Beramendiko Kontzejua eta Lagun Artea Elkartea
1027	Beramendiko sarrera	20:51:43	Itsasoko Kontzejua eta Txoko Berri Elkartea.
1028	Gazolazko malda	20:58:13	Aitziber Sarasola gogoan
1029	Ihabenerako gurutzea baino 100 m. lehenago	21:04:43	Basandereok Talde Feminista eta Ernaizu koop.
1030	Pasaderak	21:11:13	Jauntsarasko Kontzejua
1031	Jauntsarasko mediku kontsultategia	21:17:43	Basaburuko Udala
1032	Simonen benta	21:24:13	Aizarotz herria
1033	Gartzaronerako bidean, erreka baino lehenago	21:30:43	Gartzarongo Toki-Alai Elkartea
1034	Gartzaron herri bukaera seinalea	21:37:13	Fii kuadrilla eta Erbitiko herritarrak
1035	Erbiti pasatuta ikuilua eskuinean	21:43:43	Basaburuko Ezker Abertzalea eta Elkartea Ireber Kultur
1036	Errepide nagusian, ikuilua ezkerrean	21:50:13	"Panda Artist" enpresa (Pau Beramendi)
1037	Ilarregi. Errepide nagusian, bordetarako sarrera	21:56:43	Ilarregiko Kontzejua
1038a	Eltzabururako gurutzea baino 500 m. lehenago	22:03:13	Eltzaburuko Kontzejua
1038b	Eltzabururako gurutzean		Sustraiak apyma (Ultzamako eskola)
1039	Auzarako bidean, "Atención..." seinalea	22:09:43	Sustraiak apyma (Ultzamako eskola)
1040	Auza. Eltzabururako gurutzean (Sasondo)	22:16:13	Auzako Kontzejua
1041	Auzatik Larraintzarrerako bidean	22:22:43	Iraizozko Kontzejua
1042	Larraintzarko sarrera, errepide nagusian	22:29:13	Ultzamako Udala
1043	Larraintzar eta Lizaso artean	22:35:43	Lizasoko Kontzejua eta Egain elkartea
1044	Lizasoko Deskarge pasatuta, bi etheen artean	22:42:13	SAT Ultzamakoak (Postres Ultzama)
1045	Lizaso-Gelbentzu bidean, Km16 seinalea	22:48:43	Gelbentzuko benta
1046	Lizaso-Gelbentzu bidean, Km15 seinalea	22:55:13	Anotzibar eta Ziaurizko herritarrak
1047	Gelbentzu pasatuta, Km 14 seinalea	23:01:43	Odietako Udala
1048	Gaskueko gurutzea pasatuta, km13 seinalea	23:08:13	Anueko Udala
1049	Aroztegiko gurutzea baino lehen	23:14:43	Xulapaingo Udala
1050	Aroztegi-Eritzegoiti artean, Km13 seinalea	23:21:13	Ascensores Orona-ko langileak
			Atezo Irelarre Kultur Elkartea,
			Eritzegoitiko AEKko iepa Joxepa euskara ikas taldea/Izarpe Kanpina
1051	Eritzegoiti baino lehen, Km12 seinalea	23:27:43	Atezo Udala
1052	Ertzegoiti-Beratsain artean, Km11 seinalea	23:34:13	Iruñeko atezainak
1053	Beuntzarako gurutzearen ondoan, Km10 sein.	23:40:43	Iruñeko Herriko Tabernako langileak
1054	Beratsain-Muskitz artean, Km9 seinalea	23:47:13	Orkoiengo herria
1055	Imotzen sartuta, km8 seinalea	23:53:43	Oskotz eta Etxalekuko Kontzejuak
1056	Muskitz, km7 seinalea	00:00:13	Muskizko Kontzejua
1057	Muskiztik Ziarako bidean.	00:06:43	Piensos Saioa





migratzaileak

“Jendearen kontzientziak aldatu nahi nituen eta aspertuta nengoen atertu gabe entzuteaz migratzaileak diru-laguntzen bila datozela, eta horrelakoak”

‘13+1 migrazio eta zinketen bideak’ erakusketa antolatu dute Basandereek Basaburuan. Apeztegi berriko dendan eta Aizarozko kultur etxean egon da martxoan, eta gero eskualdean zabalduko dute, Orokietan, besteak beste. Zaintza lanetan ari diren Latinoamerikatik etorritako emakumeak agertzen dira argazkietan, eta etxeko langile hauen mezuak irakurtzen ahal ditugu irudiekin batera. Katia Henríquez da honen atzean dagoen argazkilaria, bera ere El Salvadorretik etorritakoa, gurekin hitz egin du.

• Zergatik jarri diozu 13+1 izenburua erakusketari?

Prozesuan taldea aldatzen joan zen, emakume gehiago batzen joan ziren, gero beste batzuk azkenean ezin izan zuten parte hartu... parte hartuko zuen behin behineko taldea nuela uste nuenean bat-batean beti deitzen zidaten bat gehiago etorriko zela esanez. 13 emakumez osatutako taldea nuenean, eta nik zenbaki hori atsegin nuen, lagun bat gehiago etorriko zela esan zidaten, dagoeneko argazki saioan geundela. Eta horregatik jarri diot izen hura, lekua badagoelako beti beste lagun bat gehiagorendako.

• Nor dira argazkietan agertzen diren emakume horiek?

Ni ere migratzailea naiz, Alkortan bizi naiz, eta atsegin nuen zerbait eginez bizi nahi nuen, eta argazkilaritzan hasi nintzen. Aldi berean, jendearen kontzientziak aldatu nahi nituen eta aspertuta nengoen atertu gabe entzuteaz migratzaileak diru-laguntzen bila datozela, eta horrelakoak. Orduan emakume migratzaileak argazkitan ateratzea pentsatu nuen eta horien bidez emakume hauek euskal gizartean egiten duten ekarpena helaraztea.

• Etxeko langileak izanda, nolakoa da haien egoera?

Egoera konplexua eta gogorra bizi dute. Hasteko ez dute paperak lortzeko aukerarik eta lan egiteko baimenik ez dutenez ezin dute kontraturik izan. Horren ondorioz, beti ez, baina kasu batzuetan nagusiak egoera horietaz aprobetxatzen dira gehiegikeriak egiteko, haien ordutegiak, adibidez, eta duina ez den tratua jasotzen dute. Batzuk paperak dituzte baina ez da gehiengoa, eta kasu horietan ere zaila izaten da, hala ere.

• Baina haien ametsak ere azaltzen dira argazkiekin batera irakurtzen dugun mezuetan, ezta?

Bai, izan ere, hasierabatean, proiektuaren helburua haien ametsak ezagutzera ematea zen, eta aldi berean gizarteari egiten zioten ekarpena, ez bakarrik arlo sozialean, baita ekonomikoan ere, haien lanaren garrantzia aitortuz. Ikuspegi

positibo batetik agertu nahi nuen eta horregatik nire lehendabiziko galdera hori zen, “zein da zure ametsa?”. Baina ezagutzen joan ginen ahala, proiektuak aurrera egiten zuen bitartean, haien eguneroko bizipenak elkarbanatzen hasi ziren, haien bidaia nolakoa izan zen azaldu zidaten.

• Argazkiak hurbiletik ateratakoak dira. Ondoan ditugu emakume horiek baina ezagutzeko ahaleginik ez dugu egiten gure egunerokotasunean, haiei hurbildu nahi duzu ikuslea?

Bada, proiektuak bizia hartu zuen bere kabuz eta hasieran gorputz osoko argazkiak egin nahi nituen baina aurrerago, plano hau egokiagoa iruditu zitzaidan. Gainera, txuri beltzean egin behar nituen, baina gero kolorez egitea erabaki nuen, aniztasunean dagoen aberastasuna irudikatzeko.



▲ Katia Henríquez Domínguez argazkilaria. Argazkia Txeluangoitiak aterata.

bultzatzeko gaupasa **Errugbia**

ekimenak



Bere 40. Urteurrenean, BRT-Menditarrak errugbi taldeak gaupasa antolatu du berriz ere Larraintzarren.

16. edizioa da aurtengoa, 2004an hasi baitziren Larraintzarko pilotalekuko gaupasa antolatzen. BRTk 1. maila nazionalera igotzea lortu zuenean, aurrekontu handiagoa eta jokalaria gehiago behar zituen, eta urte hartan lehenbiziko gaupasa egin zen Larraintzarko pilotalekuan, dirua lortu eta errugbia jendearengana gerturatzeko.

Ohiturari eutsiz, zikiro afaria izanen dute gaua berotzen hasteko, eta segidan kantu zaharrak Joxe Angel soinujolearekin. 400 lagunendako afaria izanen da, 16 bildotsen haragiarekin; Egozkueko Zubillagak prestatzen ditu Eltzaburuko Ostatu artzainaren bildotsak. Afaria akituta kontzertuak hasiko dira Puro Relajo eta Trikidantzen eskutik, eta DJ-a arituko da goizera arte.

Gaupasa antolatzen hasi zirenean askoz jende gutxiago biltzen zen afarian, lanak izaten ziren 200 lagun izateko, baina gonbita ere ez baizen horren era irekian egiten. Gauzak hala, duela 10 bat urte, taldeko gastuek ere gora egin zuten heinean, pilotalekua betetzeko erronka hartu zuten afarian zein geroko gaupasan. Ordutik hona, ia urtero bete-bete egin da Larraintzarko frontoia.

Apirilaren 6a baino lehenago eskuratu behar dira afarirako txartelak,

Larraintzarko ostatuan edo Iraizozkoan. Gauez frontoian sartzeko txartelak egunean bertan erosten ahalko dira pilotalekuan.

Denboraldi estua izan dute aurtengoa ere, mailari eusteko borroka etengabea, aurreko urteetan egin bezala. Dena den, irratian solasean izan genituen Mikel Eugi beuntzarra eta Fermintxo Larralde elizondoarra positiboki begiratzen diote datorren urteari, “serio aritu gara entrenatzen eta partidetan, eta datorren urterako ekipo majoa dugu”, aipatu zuten.



Joan zen urtean zikiroa egiten



Joan zen urteko afaria.



Berueteko ostaltua

Oihan ederrak, larre zabalak, ia-ia Basaburuko ugaldetik hasi eta Leitza jo arteko dermio ikaragarria. Herrikoetxe handia, herriko ostatu ederra.

Eliza herri bateko historian mugarria baldin bada, alderdi askotatik begiratuta, ostatuak ere inportantzia handia izan du, batez ere mutil eta gizonengan: herriko administrazioa, batzarrea eta bilerak; jolaserako, kartetan aritzeko...denbora pasarako. Inportantzia handiko lekua.

MARGARITA GARRO, BERUETEKO OSTALARI EZAGUNA.

Ia mutildutakoan ezagutu dugu Beruete. Izan diren eta diren jende guzia ezagutu dugu. Baina aurreko jendea ez, aditzez ez bada. Horietako bat Margarita Garro Urtxipia izan da, bertako ostalari izana. Zenbat aldiz ez diegu beruetearenei Margarita goraiatzatzen aditu! Errestoa utzi zuen ostalaria izan zen.

Esan bezala, gaurkoan ostatuko biziaz ariko gara Margaritaren albarekin, **Arotzeneko** Teofila Azpirotz Garroekin, 88 urteko emakume mardula, buruz argia edo umore bikainekoa; batez ere bere ama ostalari izan zenaz arituko gara.

Felix Azpirotz Iriarte, **Plazenean** bizi zen eta Margarita Garro Urtxipia, Iriartean. Ondo-ondoan bizi ziren eta 1928. urtean ezkondu ziren.

Ezkontu du ta...?

Yoan zeen Donostire, arrebak bazittun han; ta, yakiñe! beti mendin-ta oittuta,

ez etsitzen. Ta in zeen atzia onia etorri. Ta ostatu kasik urtero subastatzen emen zen, ta subasta ataa men'tzen ta amak bee atei esan: subastan atea bea'du herrikoetxe ta hartu in'beut atte, ze iduitzen zaizu?

-Neskatoa, ze in biazue, oain arte eon deenak deus'e eztue in, zorrak in'ttue, besteik deus'ez!

Ostatun, lanin hasteko're dirue biar...

Zun guzie eun duru zittun ta eta hala esan men'tzun:

-Ze galduko'ot, galtzen badot ere besteik ez dot galduko ta saiatu in bia't!

Irurtzuna joan, ontziteria guzia erosi eta herriko ostatuan hasi zen lanean Margarita, eta senarra, berriz, beti bezala, mendietan.

Beste ostatuik ez al zen izaten Biuten?

Bai, bai, bazen geigo. **Barrantxen'e** izaten zen. **Diagonen** e'bai, ta gio, **Errekalden** e Paxkaxiok kalaparra

moztu-ta itten zittun, ta haria're yendia yoaten zen. Biño ordungazterie handie izaten zen hemen!

landetan yende asko izaten ziñuten?

Bai, bai, bazkal aurrian ta atsaldin, bezperatik atia, ta gio gabe guzin.

Eta noiz akatzen zen, attunuk hoiek ...

Attunekin? Gauze etzeen in zutik etxea yoateko.

Hamikak aldia?

Eeee! Beanduago yoaten izan zeen! Batzuk yoain zeen biño beste'atzuk ez. Ze ustia'zu, gue amai majiñat pintta- ardo zorretan utzi zittoten; han eonen dee paatzen purgatorioan, ja, ja, ja!

Atzendu

Musen hasten zeen batzuk, geldittu gai, pix'itteko bakarrik gelditzen zeen ta, sartzen zen ama ta: Margarita, ekatzu pintta't ardo, ne sartzen banintzen neei, bestea't sartzen bazen besteri. Ta guk apuntatu in bia'giñuzen hoik, biño ez apuntatu... ta beti gutxio pagatzen zittoten.

Dena dela, gue ama fuerte zen ta erreklamatu. Biño haik beria paatu.

Ardoa besteik ez al zen eaten?

Ardoa generalin! Zerbeza hasie zen, biño ardoa! Kopa anis bazen orduen biño kasik iñok e'tzuen eaten. Gero bai, e! Eta afaldu ez zun iñok itten!

Yendeak e'tzun yatekorik eskatzen:

Ez. **Txibarneko** Manuel zena hasi zen aurreneko afaltzen. Margaritak



Berueteko ostaltua ▲

gisadoa patzen zun:

-Margarita gisadoa paatu bea'deezu!
Yan bea'ut!

Hue hasi zen eta handik ata, ikusten
zuten harek yaten zula, ta ordun geigo
hasi zen yendi yaten.

• OTORDUAK

**Dena dela, Teofila, aipatu
izan deezu nola etortzen zen
monteroa Yoantsastik.**

Bai, eta herrin konture bazkaltzen zun.
Eta guardia zibillek! Era't hemen, haik'e
herrin konture gosaltzen zuten.

**Ta gio, pionak eta izaten zittuen
herrik, epaitzek markatzeko,
lotiak...**

Bai, gaña, itten zuten yoateako gosald
du. Eta etortzen zeenin bazkaldu. Eta ez
pentsatu, ongi, ongi bazkaldu. Tamendi
hoieta majiña't bazkari eamana nao ni
etorri bear e'tzutenin: **Seanbeneko**
piko'hoi gora! **Intsalasen'e** bai; ta
Arpalatxen eta zulo'hoitan. Ta nik
ez nakinin non aizen, iruraie atutzen
zen neegana; bidea ataatzen zen ta
harrekin yoaten nitzen.

Eta yatekoa bizkarrez?

Ez, buruun. **Buruti** gañen. Kafiak eta
denak eamaten giñuzen, ez pentsatu!

**Eta bestela, nor izaten ziñuten
komedorian bazkaltzen?**



▲ Mertxe, senideetan zaharrena. Goikotseko Patxi Mikeo
zenaren alarguna. Alargundu ezkerrean, orain 18 urte,
ahizparekin bizi dugu, Berueten.

Teofila, Arotzeneko etxeakoandrea.



Asko etortzen zeen, zamoranoak eta,
saltzalik eta... Eta hok, gabe hemen itten
zuten beti. Kuortoak eunero beteek
eukitzen giñuzen. Kinkilleroak'e bai.

**Zun ama, ostaliri bikaiñe. Eta
sukaldarie? Presta izaten zen?**

Beti prest! Harrek beiñe'e iñoi e'tzion
esain ez'tut. Harrek prestatuko zion
iozin gauze momentun.

Olloa yokatu musen, -ta olloak bea'du
denboa itten e!- ekarri, lumatu, ziatu ta,
in ta... ta musean akatzeako, olloa prest!
Ta afari hortan, Ezekielek,
Errekaldekoak, arroltzeek bazittula
ta -halako trastria zen hure ere- ekarri
zittun ta, hamika arraultz:
-Ezekiel, hemen hamika arraultz ekarri
dittuzu bai!
-Bestia hortxe dauke mokoan!
Ja, ja, ja!

*(Ezekielek hamaika arrautza ekarri
alajainkoa; hamabigarrena jan behar
zuten oiloak moko-moko zuela. Ja, ja,
ja!!! Esan behar da ostatuan ez zutela
oilorik izaten, horrengatik esaten du
"ekarri!" egin zutela)*

*1961. urtean familia osoa joan zen
Villavara (Atarrabia) Handik urte
pare batera etorri zen gure gaurko
protagonista ezkontzaz Arotzenera.*

**Jose Arangoa Arangoarekin
ezkondu zen. Eta Margaritak 1982ko
abuztuaren 27an utzi zuen Mundu
hau.**



Txurdan

Hiztegia

Jolaserako: Hizketarako

Goraipatu: Alabar

Ontziteria: Vajilla

Iruraia: Landa eta oihaneko
guarda

Burutea: Buruan kargak
eramateko jartzen zen oihalezko
pieza. Emakumeek soikik ibiltzen
zituzten.

Zamorano: Ehun edo tela
saltzaileak.

Kinkallero: Kinkila saltzaileak.

Kinkila: Metalezko gauza balio
gutxikoak.

Moko-mokoan: Erruteko zorian,
ipurdian bertan zuela arrautza.

Amildu: Despeñar

Loki: Sien



Berueteko ostatua

Ezbeharra

Felix Azpirotz oihanean aritzen zen lanean eta ezbehar batez hil zen. Hala kontatu digu Teofila alabak:

Amiltzen akzidentia. Non izandu zun?

Hemen nonbatte, **Otsolako** mendin eo hor nonbatte. Okelako bordako Florentziokin ai zen. Hor beian, gue atte beittin ai'bentzen, trunkuk eroitzen zeenak baztertzeke edo, ez dakit. Goien, haindik bota, beti're oiue asko in gabe edo ... **(eta dirudienez trunko horietako batek ukitu zion)** ...eta hementxe zun holaxeko eaki ttiki-ttiki bat-behatzarekin lokia seinalatzen du- Ordun autobuse, autoik e'tzen. Bakizo non eaman zuten Iruñea? Autobuse etorri zeelin illunarrian, ordun eunero izaten zen autobuse, eta

autobusen asentuk zeatu eta hartan eaman zuten. Eta menditik ekarri zuten eskallea'tzutan, eskutan.

Zu hor ziñen? Zenbat urte ziñuzen?

Baaai! Beatzi urte. Eta beti gogoan dut hue ekarri zutenin, belarreko denboa zen ta **Gaztondokoak**, belarrin beti beranduxeago ai'tzen zien -famili txarra-ta-hain galdi belarrean ondoan gordetuta eon giñen, ikaatuk. Atte ez giñun ikusi're.

Eta geo eaman zuten Iruñea, klinika San Miela. Eta gue amak hala esaten zun, aoa're ez omen ziotela garbitzen... gizajoari. Ta berealaxe eukittu omen zuten... deus in gabe. Berak al zuena itten zion... yoaten zen eunero nolabatte!

Ta eun askoz eon al zen hala San Mielen?

Bai, franko in zittun, gio in zion... -un ataque de meningitis- edo eman ziola. Ta hartatik hil zen.

Ta telefonoik ez zen hemen, Aldatzik etortzen zeen telegramak, eta honia oñez etortzen zeen abisoakin. Ta akordatzen naiz beti, makur zegoala eta yoateko ta gue ama nola yoan'tzen, ta han enterratu zuten.

Bere aitaren heriotza Teofilak ederkikontatua, orduan bederatzi urte besterik ez zituenak. Bost ume umezurtz utzi zituen Felixek: Mertxe, Teofila, Maritxu, Angel eta Ximon, zaharrena 11 urtekoa eta gazteena 4 hilabetekoa.



2018ko otsaila

Gure alderdian, otsailean izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak / Ezkontzak

Guk dakigularik, jaiotzarik eta ezkontzarik ez da izan. Eta heriotza bat besterik ez:

heriotza:

ULTZAMA Suarbe

Angela Urtasun Iribarren, **Alortxeko bordako** etxeako andre zaharra, otsailaren 20an hil zen.



Gure oroimenean izanen zara.





“Diskoa ateratzea ez zegoen planteatuta”

Ultzamako hainbat lagunekin rock musika taldea izan zuen aspaldi Iñaki Larraiozek, baina irratsaio bat ere Esan Erran irratian. Frantzian emandako egonaldia ostean, etxean jo eta abesten zituen doinuei letra jarri die Iñigo Astitzen laguntzaz, eta Berako estudioetan grabatu du bere lehenbiziko diskoa, ‘Larra Bideak’. Martxoaren 22an aurkeztu zuen Larraintzarren.

ZEIN HARREMAN IZAN DUZU MUSIKAREKIN ORAIN ARTE?

Txikitatik, Larraintzarko ikastetxean ikasten nuenetik. Eskola eta gero solfeo klaseetara joaten nintzen, eta zortzi bat urte nituelarik gitarra klaseak hartzen hasi nintzen. Hamalau/hamabost genituela rock talde bat sortu genuen, ‘Eremu’, gero ‘La Betty Travan’ berrizendatu genuena.



ETA ORAIN BAKARKA, ZERGATIK?

Egia esan, ez zegoen planteatuta. Kanpoan eman nituen urte haietan kantak pilatzen hasi nintzen, sasi-kantak, niretzat egiten nituenak. Baina konturatu nintzen material interesgarria pilatu nuela, eta taldekide izandako Iñigo Astitzi letrekin laguntzeko proposatu nion. Hala hasi zen disko honen prozesua.

“POP, FOLK ETA BLUESAREN ARTEKO UZTARTZE INTIMISTA” OMEN DIRA ZURE ABESTIAK.

Intimistak dira etxean niretzat sortutako abestiak direlako, kanpoan zaudelarik, etxetik, familia eta lagunengandik urrun egonda, sentimenduen gorabeherak izaten dira, eta hori dakantuetan islatzen dudana, horrela atera zait.

ORAIN DISKO BIHURTU DITUZU ZURETZAT ZIREN ABESTI HORIEK, NOLA IZAN DA GRABAKETA?

Berako Atala estudioetan grabatu genuen, Iñigo Irazoki teknikariarekin. Orain arte auto-ekoizpenaren alde egin dugu beti, baina gehiegizkoa zen halako proiektu bat bakarka egitea. Beraz, kalitatea eta gauzak ongi egitearen helburuarekin grabatu dugu bertan.

ZER SENTSAZIO EMAN DIZU ERDITU DUZUN DISKOA?

Egia esan, lehenengo momentua ez da espero duzun goxoa, baina denborarekin konturatzen zara ongi dagoela eta gozatzen hasten zara.

ETA INGURUKO EK ZEIN IRITZI EMAN DIZUTE?

Askok ez zuten halakorik espero, rock munduan aritzen nintzelako batez ere, eta ez nintzelako abeslaria, eta sorpresa hartu dute askok. Baina jendeari gustatu zaio eta oso kritika onak jaso ditut, espero ez nituenak.

Larrabideak diska ▼





Euskara hil egin da (II)

(2018ko ekaineko zenbakian idatzitakoaren segida)

1975eko azaroaren 20a zen. Zazpiak eta erdi ziren eta goatzetik altxatu eta sukaldara abiatu nintzen. Askoz ere lehenago jaikita, aita bertan ari zen lanean, egunero bezala, eta hala esan zidan hitzetik hortzera:

-Hil duk!

Franco zen hil zena.

Ez nion erantzun ere egin, aspalditik hil zorian zegoen gizona, agonian; eta eguna pasa eta gaua pasa, eta hiltzen ez. Hala ere gizonaren patua idatzia zegoen. Bagenekien luze baino lehen hilen zela. Ez zegoela ihes biderik eta Erregimenak berak ere aspaldiko egunetan etsia hartua zuela.

Hil duk, esan zidan, eta ez **hil egin duk**. Bi gauza diferente baitira, bata espero dugunaren heriotza da eta bestea, berriz, ezustekoa.

Esate baterako, etxeko kanarioa goiz hartan hil izan balitz, zera esanen zidan: **Badakik? Kanarioa, hil egin duk eta ez hil duk**, etxekook oharturik baikin kanarioa nolako osasunarekin zebilen. Udazken berandua eta oraindik ere atertu gabe kantari. Ustekabe ederra izanen zen hil izan balitz.

Gure alderdiko azken herri euskaldunetatik, Etxaleku, Goldaratz, Beruete, Arrarats eta Igoa, haurren ezpainetatik euskara desagertu da. Eta, dirudienez, inor jakitun ez dela hil zaigu. Hobeki esan **hil egin zaigu** euskara. Garai zaharretan, aurretik, beste ehunka herritan joan zitzaigun gaizkitzen eta bukatzen. Euskara hiltzen joan zen, baina azken herri hauetan, besteetan ez bezala, HIL EGIN zaigu. Nonbait garai zailak pasatuak ziren eta, ez uste hilen zenik. Eta hortaz edo, ez ikusiarena egin dugu, belarriak estali ditugu, buruko

ahalmena trabatu dugu; oraindik jendea ez da jabetu. Ez zaio iruditzen hil egin denik.

Baina, baina, zer ari naiz idazten?

Zein zaila zaidan euskararen heriotzaz idaztea! Zein zaila zaidan gogoeta ttikiena ere egitea!

Eta besteei ere, iazko idatzia irakurri zutenei ere, zaila izan zaie, dirudienez, isiltasuna nabaritu baitut hain hurbileko gaia izanik ere!

Gai honetan zaila zait pauso bat aurrera ematea, gaurkoan ez baitut pauso bat ere eman, Francoren heriotza lazgarriarekin korapilatu bainaiz.

Gehiago ezin, gogoeta hitsok utzi eta banoa. Ardo frexko aho gozagarria edatera noa, poliki-poliki ostatura. Frustrazio guzia ardotan arintzera.

Hurrengoan beharko diogu heldu kontu honi!



Txurdan

Hiztegia

Hitzetik hortzera: Bat-batean, besterik gabe.

Patua: Zoria, suertea

Gogoeta: Reflexion

Lazgarria: Zaurgarria

Hitsa: Tristea



Francisco Franco, buruzagi espainola, 1936-1939ko gerra irabazi zuena. ▲



Lehenbiziko aldiz, pagoa ateratzeko prozesadorea Ultzaman

Prozesadore mekaniko bat ari da lehen aldiz pagoa ateratzen Ultzaman. Nafarroan ez da orain arte erabili, eta Arraitz inguruko pagadietan ari da biomasarako pagoa ateratzen.

Lehenago pinudietan erabilia izan da prozesadore hau, baina inoiz ez pagadietan. Momentura arteko emaitzak nahiko nabarmenak dira: azkarrago, merkeago, garbiago eta isilago. Izan ere, orain arte eskuz ateratzen zen pagoa, motozerraz. Eta denbora gehiago eskatzeaz gain, garestiagoa zen; gainera, geroz eta langile gutxiago daude basoan lanean. Motozerra hidraulikoa da, eta normalek baino soinu gutxiago egiten du.

ZER DA PROZESADOREA?

Besoan buru berezi bat duen hondeamakina da prozesadorea. Buru horrek pagoari heltzen dio, eta motozerraz moztu. Zuhaitz osoa mugitu dezake gero, eta nahi duen distantzian moztu, adarrak ere kenduz. Hamabost bat segundoko denbora eskatzen dio pago bakoitzak.

ZER ARI DA EGITEN?

Pagadia garbitzen ari da, argi gehiago ematen. Izan ere, oso baso itxia da, eta argi gutxi sartzen denez, pagoak ez dira behar bezala hazten. Horietako batzuk kenduta, besteak askoz hobe haziko dira, eta hemendik hogeit bat urtera balio ekonomikoa izanen dute. Orain ateratzen ari direnak ez dute baliorik, eta basoan utzi beharrean biomasa gisa erabiliko dituzte udalaren eraikinak berotzeko (ikastetxea, frontoia, osasun-etxea, udaletxea...), hiru hilabetez idortzen utzi ostean.

Adarrak, legez, basoan utzi behar dituzte, biomasa izanik denboraren poderioz desegingo direlako.

BASOA, BALIABIDE EKONOMIKOA

Eskualdean dugun natur baliabide garrantzitsua da basoa. Dirua balio du egurrak, geroz eta gehiago, are gehiago pagoak. Antzinako garaietatik izan dute gure basoek aktibitate ekonomikoa, eta egun ere badute. Ekonomia iturri garrantzitsua da, eta etorkizunean ere izateko, modu jasangarri batean ustiatzen ari da udala.

Horretarako ezinbestekoa da, orain bezala, balioa ez duten pagadien garbiketa egitea, besteek balio ekonomikoa eskuratu dezaten. Hala azaldu digu Ultzamako basozain den Jon Etxekoloneak



▲ Prozesadorea lanean



▲ Prozesadorearen eskuin aldean oso itxia dago basoa, eta pagoa ezin da gehiago hazi



mendi lasterketa

Ultzama trail

Lehenengo aldiz mendi lasterketa bat antolatu dute Ultzaman. Aspalditik bueltaka egon den ideiak forma hartu du, eta apirilaren 6a izan da Ultzamako mendietan barna lasterka aritzeko aukeratutako data.

Bi ibilbidez osatuta dago lasterketa, luzea eta motza, gaitasun eta kirol maila ezberdina daukatenendako.

Luzea: 19 kilometro, 600 metroko desnibel positiboa

Motza: 10 kilometro, 300 metroko desnibel positiboa

Bi igoera nagusi izanen ditu lasterketa luzeak, 300 metroko desnibelekoa bakoitzak. Iraizotzik Arañotzerako bideko igoera gogorra bi ibilbideen

barnean egonen da, eta Gorronztik Beuntzalarrerako igoera luzean bakarrik. Igoerek bezala, jaitsierek ere diferentzia markatu dezakete, Arañotzik Eltsorazein Beuntzalarretik Larraintzarra.

Larraintzarko pilotaleku ondotik abiatuko dira ordu berean bi lasterketak, goizeko 11etan. Dortsalak eskuratzeko tarte lehena irekiko da, 9:30ean, eta 10:45 bitarte izanen da irekita.

Sei herriren barnetik igaroko da lasterketa: Iraizotz, Eltso, Zenotz, Lizaso, Gorronztz eta Larraintzar. Helmuga, irteera bezala Larraintzarko Julian Lajos pilotalekuan izanen da, 10 zein 19 kilometroko lasterketena.

SARIAK

Gizon zein emakumezkoen sailkape-nerako sari berdinak izanen dira:

Luzea

1.Txapela, 160€ eta babesle baten saria

2.Oroigarria, 75€ eta babesle baten saria

3.Oroigarria eta babesle baten saria

Ultzamako 1. korrikalariari oroigarria eta babesle baten saria

Motza

1.Txapela, 80€ eta babesle baten saria

2.Oroigarria, 35€ eta babesle baten saria

3.Oroigarria eta babesle baten saria

Ultzamako 1. korrikalariari oroigarria eta babesle baten saria.





Prozesio garaia

Udaberriaren hasiera prozesio garaia izaten da Nafarroan. Dozenaka izan ziren Xabierrera bidean oinez abiatu zirenak martxoko lehenbiziko asteburuetan. Horiek errepideetan edo pistetan barna ibili ziren, baina badira ezkutuan, basoetan barna ibiltzen direnak.

Pinudietan ikusten ditugun 'prozesionariak' edo pinu-beldarraz (*Thaumetopoea pityocampa*) ezagunak ez diren datuak emanen dizkizuegu hemen, Aizarozko Juan Markinak irratian azalduta:

1. Lepidopteroa da, tximeleten familiakoa, baina arra da normalean ikusten duguna.

2. Intsektuek, normalean, udan egiten dute zikloaren zati gehiena, hauek aldiz, neguan: Arra udan jaiotzen da, eta zuhaitzetan habiak egiten dituzte bertan bospasei hilabete emateko. Neguko hotzaz eta prezipitazioez babesteko zetazko habi gogorak egiten dituzte.

3. Udaberrian, berotzen hastendenean zuhaitzetik jaitsi eta lurrera prozesioa egiten abiatzen dira, zulo batean sartu eta bertan krisalida bihurtzeko.

4. Prozesioetan emea da beti aurretik doana. Nahiz eta lehenengo emea

eskuz kendu, beste eme baten atzetik joanen dira gainontzekoak.

5. Lurrean beste bospasei hilabete ematen dituzte krisalida egoeran. Uda aldera ateratzen da tximeleta, eta bi eguneko bizitza izaten du. Arrautzak jarri eta arraren zikloa hasten da berriz.

6. Pinudietan jartzen dituzte habiak, eta Larizio pinua da gustukoen dutena. Bere hostoak janean bizi da arra, egun beroetan habiatik atera eta hostoak janean.

7. Arrek 5 araldi edo aldaketa izaten dituzte, eta hirugarrenean defentsa mekanismo bezala ile erresumingarriak garatzen dituzte. Lurrean daudenean, arrisku sentitzean askatu egiten dituzte, eta airean gera daitezke.

8. Pertsonendako zein animaliadako kaltegarriak dira. Pertsonengan azkura eragiteaz gain, asma, alergiak edo urtikaria sor dezakete, eta zakurrak

bezalako animaliadako hilgarriak izan daitezke; izan ere, zakurrek muturra lurrean eramaten dute askotan, eta arnasa hartzeko zailtasunak sor dezakete.

9. Pinuendako ere kaltegarriak dira, hostoak jan eta fotosintesi ahalmena kentzen diete, pinu txikiak ihartzera ere iritsi daitezke.

10. Krisi ekonomikoa iritsi aurretik airez fumigatu egiten zuten arra (7.000Ha Nafarroan), eta azken urteetan *Bacillus thuringiensis* intsektizida ekologikoa erabili zuten Nafarroan. Krisiaren ondorioz eta izurrite naturala dela ondorioztatuz, fumigatzeari utzi zioten.

Aurten oso negu lehor eta epela izan dugu, eta zikloa lehenago egin du arrak, horregatik oso goiz ikusi dugu lurrean prozesionaria. Gainera, oso ar gutxi hil dira habietan, giro ona izan dutelako. Horrek populazio handia izatea bultzatu du, eta datorren urtean ere habia ugari ikusiko ditugu.





Josefa eta Eloisa Uriz Pi,

bi ahizpa erraldoien istorioa

Askotan urrun bilatzen ditugu erreferente kultural edo sozialak, gure artean daudela jakin gabe. Uriz Pi ahizpen istorioa adibiderik onena da. Lehenbiziko erakunde feministen sortzaileak eta haurrendako pedagogia berrien bultzatzaileak izan ziren; eta II. Errepublikan eta Espainiako Alderdi Komunistan kargu garrantzitsuak izan zituzten. Biak Nafarroan jaio ziren, Eloisa Tafallan eta Pepita Badostainen. Hala ere, orain dela gutxi hasi da ezagutzen eta baloratzen haien garrantzia historian, besteak beste gaur komentatuko dugun liburuari eta idatzi duten idazleei esker. **Pioneras. Historia y compromiso de las hermanas Uriz** da bere izenburua, eta Manuel Martorell, Salomó Marquès eta M^a Carmen Agulló dira egileak. Alfonso Etxeberriak sinatu du hitzaurrea.

Etxeberria Eguesibarko alkatea da (Badostain, Pepita Urizen jaioterria, bailara honetan kokatzen da) eta Manuel Martorell kazetari eta historialarekin batera etorri zen gurera pasa den martxoaren 15ean liburua aurkeztera eta Larraintzarko Gizarte

Etxean azken egunotan egon den Uriz Pi ahizpen bizitzari buruzko erakusketa inauguratzera.

Etxeberriak kontatu zuen bezala, erakusketa hau liburuaren abiapuntua izan zen. Erakusketa ibiltaria, hainbat hiri eta herritara bidaia egin du Uriz Pi ahizparen historia jakinarazteko, esaterako Gironara, Hanburgora... edota Eguesibarrera bertara, Sarrigurenera hain zuzen ere, non herrirako eskola publiko batek Uriz ahizpen izena daraman edo erraldoi batek Pepita Urizen figura irudikatzen duen, bere begiko adabaki bereizgarri eta guzti.

Manuel Martorellek, bestalde, Josefa eta Eloisak faxismoaren kontrako borrokan izaniko inportantzia azpimarratu zuen, Errepublikan eta gerra zibilean, baita Frantziako erresistentzian ere, erbestera zirenean. Karlismoan eta Espainiako alderdi komunistan aditua, Martorellek beste nafar unibertsala eta ezezagunaren, Jesus Monzonen bizitza aztertu du eta bere ikerketan ezagutu zuen Uriz Pi ahizpen historia eta kontaktea eta ezagutaraztea

erabaki zuen. Hori guztia, politikari dagokion partean biltzen da, Manuel Martorell beraren eskutik. Liburuaren lehenengo partea hiru zatitan banatzen baita. Bigarrenean, **Adalides de la formación del magisterio y la educación en Cataluña**, Salomó Marquès katedratikoak pedagogia eta heziketarekin lotuta dagoena (Josefa eta Eloisa Uriz Pi oso emakume iraultzaile izan ziren arlo honetan) azaltzen digu; eta azkenik, hirugarren atalean, **Josefa Uriz: de sanción en sanción y de dictadura en dictadura**, M^a Carmen Agulló irakasleak Josefa Urizek bere ideiak eta metodo aurrerakoiak defendatzeagatik pairatu zituen zigorrak eta errepresioa azaltzen ditu.

Josefa eta Eloisa, azken finean, benetako emakume erraldoiak dira eta merezi du haien historia ezagutzeak.

Liburua, jakina, liburutegian dago zuen zain!

Patxi Irurzun, liburuazaina



Zorionak Zorionak !



Zorionak June !!



Zorionak Oinatz eta Maddi !!



Zorionak Maren !!



Zorionak Inarpe !!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com

BasaNet, Basaburuko Internet enpresa publikoa

Tramiteak egin zain dago Basaburuan internet arazoak konponduko dituen enpresa publikoa, baina laster emanen du zerbitzua bailarako herri gehienetan. Momentuz Sisnetek kalitatezko internet emanen du Aizarotz, Gartzaron eta Itsason.

Izan ere, aspalditik udalak mahai gainean duen arazoa da internet konexio eta telefono estaldura kaxkarrarena. Sareko abiadura oso mantsoa da, eta herri batzuetan, arratsalde ezinezkoa da internet sarera konektatzea.

Normalean, operadore pribatu handiak dira azpiegitura inbertsioak egitendituztenak, herritarrei internet zerbitzua eman ahal izateko. Baina jakina da gure inguruko herrietan azpiegitura horiek egitea garesti dela, eta operadore handiek ezin dutela etekin ekonomiko handirik atera, bezero gutxi daudelako.

Basaburuko Udalak, aldiz, herritarrei internet zerbitzu on bat emateko asmoarekin, alternatibak bilatzeari ekin zion. Nafarroako Gobernuak zuntz optikoa udalerri guztietara iristeko proiektua martxan jarri zuen, baina udalei ordaintzea zegokien partea handiegia da Basaburua bezala, kontzeju sakabanatu ugari dituen udal batendako. Horregatik, beste dirulaguntza batzuk eskuratuta, Gartzaron, Aizarotz eta Itsaso zuntz optiko sareaz hornitu ditu. Denaden, Nafarroako zuntzaren sare orokorrera konektatuta ez dagoen arren, irrati uhinen bidez eginen du.

Udalak egin du azpiegitura hori, eta herritarrei eskaini nahiko lieke, baina arazo legalekin topatu da. Konpetentzia legeak ezartzen du

operadore pribatuek soilik eskaini dezaketela internet zerbitzua. Baina, udalak operadore publiko bat sortuko du, 'operadore neutro' deitutakoa, BasaNet. Udalak ezin du zuzenean sare hori kudeatu, eta horretarako sortu du BasaNet enpresa publikoa, baina honek ere lege ezin du internet zerbitzua eman, eta operadore pribatuei bere sarea eskainiko die. Hau da, operadore pribatuek egin ez duten inbertsioa Basaburuko Udalak egin du, eta Udalak egindako sare hori erabiltzeagatik BasaNet enpresa publikoari ordaindu beharko diote operadore pribatuek, gero haiek internet zerbitzua eskaintzeko herritarrei. Jasotako diruarekin, inbertsioa berreskuratu eta sarea Basaburuan zehar hedatu eta osatuko du udalak.

Momentuz Sisnet enpresak emanen du zerbitzua Gartzaron, Aizarotz eta Itsason, baina laster Udabe, Beramendi, Erbiti, Jauntsarats, Orokieta eta Olara iritsiko da, baita beste enpresa batzuen bidez ere.

Aitzindari da Basaburuko Udalak halako proiektu bat ezartzen. Izan ere, denbora luzez dugun arazoa da internetsarearen kalitate eskasarena, eta hau zen udalari geratzen zitzaion alternatiba bakarra, aldi berean burujabetzaren aldeko apustua egitea.



▲ Berueteako telekomunikazio antena

NEUMÁTICOS BETELU

646 47 41 66

Juan Alonso Ortiz

Taller Mugikorra

Neumatikoen aldaketa

Zulatutako neumatikoen konponketa

Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
neumatikoak konpontzera
Kostu gehigarririk gabe, kontsultatu prezioak
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu

Erdiko karrika, 8A · Aizarotz (Basaburua) · Info@neumaticosbetelu.es

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK · PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com






esan 107.9 erran irratia



ASTELEHENA ASTEARTEA ASTEAZKENA OSTEGUNA OSTIRALA LARUNBATA DOMINGOA

MUSIKA

0-1								0-1
1-2								1-2
2-3								2-3
3-4								3-4
4-5								4-5
5-6								5-6
6-7			ARGI IBILI					6-7
7-8			FAKTORIA				GOIZ	7-8
8-9			IRUÑERRIAN GAUR ALBISTEGIA				KRONIKA	8-9
9-10			METROPOLI FAROLA					9-10
10-11			EGUNERO ZUZENEAN				LANDABERRI	10-11
12-13			FAKTORIA				bide egiuez	12-13
13-14			GOIZAK GAUR ALBISTEGIA				berzpinha	13-14
14-15			EGUNERO ERREPIKAPENA					14-15
15-16			MUSIKA					15-16
16-17			KONTU KONTARI				soinuzela	16-17
17-18			zebrabidea				adi	17-18
18-19			MUSIKA				kolpez	18-19
19-20	karakola saga hola	ama bota pun errielpetit	a degalambran	hankak lurralan	erri ta bera		kolpe	19-20
20-21			EGUNERO ERREPIKAPENA					20-21
21-22			MUSIKA				ESAN	21-22
22-23	KATEDRA	LIZARDIEN BATAIZA	ZUBIAK	EKOEFERA	HIDU ERDEGEN NAHATIA		ERRAN	22-23
23-24			ZAPINZALEA				SESIOAK	23-24



BEREIZKO
IRRATSAIOAK

EUSKADI IRRATIA

EUSKALERRIA IRRATIA

arrosa garra

ameztineus
Gizartealdeko albisteak

arrosa
irratia garra

948503232

689033000

pulunpe@gmail.com